

IPUIN KONTALARIA BASERRITIK MUNDURA



Ingurugiro hezkuntza eta
garapenerako hezkuntza uztartzen
dituen lehen hezkuntzarako
zuzenduriko programa

MUGARIK GABEKO
ALBAITARIAK

sarrera

Garatu dugun programa hau Oinarrizko Hezkuntzako hiru zikloetan lantzeko sortua da. Ekintza eta ataza hauen helburua XXI.mendeko arazo ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenarekikoak ezagutaraztea da. Honi esker, "elkartasun" eta "garapen jasangarri" kontzeptuak hezkuntzako eta ikas-prozesuko arlo guztietan barneratzea lortze aldera. Programa burutzeko, lehenik eta behin, ipuin kontalari batek eskainitako saioa izango da ikusgai. Horrezaz gain, ikasgelan lantzeko material osagarria helarazten zaio irakaslegoari.

Programa hau gauzateko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza dugu. Beraz, proposamen hau egiteko beharrezkoak diren material eta ekintza guztiak dohainik izango dira.



IPUIN KONTALARIA, BASERRITIK MUNDURA

argudioa

Baserritar batek bere eskarmentuaren berri emango digu. Izan ere, gorabehera batzuk medio, mundua ezagutzera joatea erabaki zuen. Horrela, Irango basamortua, Afrikako Ghana eta Boliviako Altiplanoa ezagutzeko aukera emango zion bidaiari ekingo dio. Bidaia amaitzean, bere lurraldera itzuliko da, munduan zehar ikasitakoa ahaztu barik: alde batetik, bertan egiteko duen lanaren garrantzia; eta, bestetik, orain, jakin badakielako naturarekin era armoniotsuan bizi den nekazaritzaren oinarriak berberak direla munduko edozein tokitan.

helburuak

- Munduko herrialde ezberdinetan jasotako istorioen bitartez, unibertsalak diren aspektu eta balio ezberdinak lantzen ahaleginduko gara. Hala nola:
 - Errespetua, elkartasuna, norbanakoaren onarpena, tolerantzia, sormena eta partehartzea.
- Baita beste kontzeptu eta helburu zehatzago batzuk ere. Esaterako:
 - Naturaren ezagutza eta berarekiko begirunea.
 - MANIPULAZIO genetikoen arriskua
 - Norberarentzako lanak eta konstantziak duen eragin positiboa.
 - Aniztasunak duen garrantzia.
 - Bioaniztasunak garapen jasangarrian duen garrantzia.
 - Jakituria ezin dela gutxi batzuen esku egon, baizik eta komunitate osoaren esku.
 - Naturaren jakituriak duen indarra, gizakiak berarengan ezarri nahi duen kontrolarekin alderatuz gero.
 - Ekosistema ezberdin eta bizimodu desberdinekiko begirunea garatzea.
 - Herrien Elikadura Subiranotasunaren garrantzia ezagutzea (ekoitzi ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak-ura, lurra, haziak eta jakinduria- eskuratzeko eta erabiltzeko pertsonak eta herriek duten eskubideak).



MATERIAL OSAGARRIAK.

IPUIN KONTALARIA BAI, JOLASA ERE BAI

Ipuinetan ikusitako balio eta kontzeptuak indartzeko
2 jarduera ezberdin proposatzen dira:

1. Natdarren munduko maletina

argudioa

"Natdarren lurraldea" DVD formatoan aurkezten den ikus-entzunezko ekoizpena da. Bertan, "Nats" izeneko txontxongilo txiki eta atseginekin batera, hainbat istorio ezberdinetan murgiltzeko aukera izango dugu. Natdarrak zoriontsu bizi dira beraien herrixkan, naturak eskaintzen dituen aberastasunez inguratuta. Baina euren alaitasuna mantentzeko, hainbat arazoiei aurre egin beharko diete.

helburuak

- 15 minutuko hiru istorio edo kapitulu ezberdinen bitartez, kontu kontalarietan lantzen diren balio eta kontzeptu unibertsalak indartzea.
- Horrez gain, kontzeptu espezifiko ezberdinak aurkezten dira; hala nola:
 - Nekazal komunitateek oinarritzko baliabideak (lurra, haziak, ura) eskuratzeko eta erabiltzeko dituzten zailtasunak.
 - Elikagai transgenikoen hedapena eta horrek dakarren bioaniztasunaren galera.
 - Herrialde aberastuen kontsumismoak herrialde txirotuetan sortarazten dituen ondorio lazgarriak (langileak esplotatuak izaten diren enpresa edo lantegien ezarpena; baliabide naturalen lapurketa eta abar).

metodologia

JOLASA:

DVDekin batera, tradiziozko jolasetan oinarrituriko materiala banatuko da (tokea, puzzleak, oroimen-jolasak, bikote-jolasak, hexagonoa eta abar). Kapitulu ezberdinetan landutako gaiak buruzko hausnarketa jolasen bitartez bideratuko da. Horretarako, "Natdarren Lurraldeko" maletinean aurkituko duzuen gida pedagogikian azalpen guztiak aurkituko dituzue.

OHARRA:

Materiale hau ipuin kontalariaren saioa ikusi aurretik, zein ikusi ostean landu daiteke.



MATERIAL OSAGARRIAK.

IPUIN KONTALARIA BAI, JOLASA ERE BAI

2. Silvano, nekazari Boliviar txikiaren istorioa

argudioa

Silvano txikia Bolivian bizi den umea da. Fitxa ezberdinetan agertzen diren istorio ezberdinen bidez, Silvanok, Boliviako Altiplanoko nekazarien bizimodua azalduko digu.

helburuak

- Fitxa ezberdinetan agertzen diren istorioen bitartez, kontu kontalarian lantzen diren balio eta kontzeptu unibertzalak indartzea.
- Horrez gain, kontzeptu espezifiko ezberdinak aurkezten dira; hala nola:
 - Bestelako kulturen ezagutza (Bolivia) eta besteekiko errespetua izatea.
 - Nekazari txikienganako jazarpenak eta horrek sortarazten dituen migrazio mugimenduak.
 - Emakumeek egiten duten lanaren garrantzia.
 - Abeltzain eta nekazari txikien garrantzia elikaduran eta ingurugiroaren babesean.
 - Herri garatuetako bizimoduak duen eragina.

metodologia

JOLASA:


Fitxa bakoitzarekin banatzen diren kartoizko pertsonaia eta irudiei esker, Silvanok eta bere familia giza-haragizko bihurtuko ditugu. Horrela, Boliviako Altiplanoko bizimodu eta usadioak ezagutaraziko ditugu. Fitxa bakoitzean, irudi eta pertsonaia ezberdinen deskribapena eta berarekin erlazonaturiko hainbat jarduera agertzen dira. Pertsonaia eta irudi bakoitza azaltzen den heinean, haurrek Silvano nekazari txikiaren istorioa osatuko dute, euren sormenaren arabera.

Jokuaren erabilera errazteko, Silvanoren fitxa eta irudiekin batera, osagarria den gida banatuko da.

OHARRA:

Materiale hau Ipuin kontalariaren ikuskizuna ikus aurretik, zein ikusi ostean landu daiteke.





Proposamen hau hurrengo kurtsoan jarriko dugu martxan. Partehartzeko baldintzak eta informazio gehiago behar baduzue, jarri harremanetan gurekin.

MUGARIK GABEKO ALBAITARIAK

Tfnoa: **944 961 175** **695 478 735**

Posta elektronikoa: euskadi@veterinariossinfronteras.org

MUGARIK GABEKO
ALBAITARIAK